



# XII. PREMIO SAN SEBASTIAN GIPUZKOA FILM COMMISSION SARIA 27 IRAILA SEPTIEMBRE 2023

San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission bulegoaren (Donostiako Sustapenaren, Donostiako Udaleko Ekonomia Bultzatzeko Zinegotzigoaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuaren arteko bulegoa) helburu nagusia da Donostian eta Gipuzkoan zinemagintzaren eta ikus-entzunezkoen sektorea sustatzea eta bultzatzea. Horretarako, bulegoak Gipuzkoako garapen-agentzien laguntza jasotzen du.

Besteak beste, honako hauek dira San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission bulegoaren funtsezko helburuak:

- Donostia-Gipuzkoa sustatu eta bultzatzea, ikus-entzunezko filmazioak eta argazki-saioak erakarriz, eta horiek egitea erraztuz. Horri esker, Donostia-Gipuzkoa lehen mailako helmuga izango da, bertan filmatzen diren ekoizpenen kantitate eta kalitateagatik, filmazioek eragin ekonomiko handia izaten baitute horiek filmatzen diren lekuetan.
- Sektore zinematografikoa eta, oro har, tokiko eta probintziako ikus-entzunezkoen sektorea sustatzea, baita sektore horien lehiakortasuna eta kalitatea ere, erakarriko diren kanpoko filmaketak tokiko sektoreko enprekin, eragileekin eta erakundeekin lankidetzan aritu daitezzen sustatzeko eta horretan lan egiteko.

Helburu horien esparruan, San Sebastian - Gipuzkoa Film Commissionek San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission Sariaren hamabigarren ediziorako deialdia egin du. Ikus-entzunezko ekoiztetxeen lana saritzea da helburua, horiek negozio- eta enplegu-aukerak sortzen baitituzte ekoizpen horien eszenatoki bihurtzen diren hirietan.



## SAN SEBASTIAN - GIPUZKOA FILM COMMISSION SARIAREN XII. EDIZIOAREN OINARRIAK

### 1. Sariaren helburuak eta baldintza orokorrak

San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission sariaren helburu nagusia ikus-entzunezko ekoiztetxeen lana goraipatzea da, beren filmaketekin negozio- eta enplegu-aukerak sortzen baitituzte beren ekoizpenen eszenatoki bihurtzen diren hirietan. Horrela, filmatu diren tokietako balio urbanistiko, paisajistiko, kultural eta sozialak hobekien islatzen dituzten fikziozko film luzeak sarituz.

San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission Sariaren XII. edizioan doan parte hartu ahal izango da, eta horrek ez du esan nahi sarian parte hartu duten ekoiztetxeek egindako ekoizpenei inbertsio edo ekintza gehigarriak egin behar zaizkienik. San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission Sariaren XII. edizioa honako lege-oinarri hauek arautuko dute, eta parte-hartzaile guztiek, parte hartze hutsagatik, prozedura arautzen duten lege-oinarriak eta arauak onartu behar dituzte.

Era berean, San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission Sariaren XII. edizioaren antolatzaileek ("Antolatzaileek") sariaren edizio hau edozein unetan eten, aldatu edo bertan behera uzteko eskubidea izango dute. Kasu horietan, parte-hartzaile eta hautagaiak ez dute inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

### 2. Lurralde-eremua, denbora-eremua, parte-hartzaileak eta parte hartzeko baldintzak

#### Lurralde-eremua

San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission Sariaren XII. edizioa lurralde nazionalean garatu diren ekoiztetxe eta produkzio eta koprodukzioentzat izango da.

Horretarako, lurralde nazionaltzat hartuko dira Iberiar Penintsula (Portugal izan ezik), Balear Uharteak, Kanariak eta Ceuta eta Melilla hiriak.

#### Denbora-eremua

San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission Sariaren XII. edizioaren deialdia 2023ko maiatzaren laugarren astetik aurrera egongo da indarrean. Izan ere, aste horretan irekiko da interesa duten ekoiztetxeek beren film luze hautagaiak aurkezteko epea. Parte hartu nahi duten ekoiztetxeek 2023ko ekainaren 30era arte izango dute izena emateko epea.

Sari-banaketa 2023ko irailaren 27an egingo da, eta egun horretan amaitutzat emango da San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission Sariaren XII. edizioa.



Hala ere, San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission Sariaren XII. edizioaren antolatzaileek, komunikabide eta abisu egokiak erabiliz, parte hartzeko datak edozein unetan aldatzeko eskubidea izango dute.

### Parte-hartzaileak eta parte hartzeko baldintzak

San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission Sarira fikziozko film luzeen hautagaitzak eta proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte honako betekizun eta baldintza hauek betetzen dituzten ekoiztetxe nazional guztiek:

- Beren produkzio edo koprodukzioen zati bat lurralde nazionalean garatu duten ekoiztetxe nazionalak izatea. Zentzu horretan, eta aurrekoarekin bat etorritik, ekoiztetxe nazionaltzat hartuko dira oinarri hauetako «lurralde-eremua» atalean aipatzen diren lekuren batean eratu diren eta kokatuta dauden ekoiztetxeak.
- Estatuko Film Commission baten laguntza egiaztatua izatea. Sari honen oinarrietako baldintzak bete ahal izateko, lankidetzara gisa ulertuko da, gutxienez, filmatu den lekuko edo lekuetako film commission(et)an eskaintako zerbitzua erabili izana.
- Ekoizpen-data 2022ko ekainaren 30etik aurrera duten film luze guztiak aurkeztu ahal izango dira.
- Film luzeek 60 minututik gorako iraupena izan beharko dute.

### **3. Kontaktua eta oinarriak argitaratzea**

San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission Sariaren XII. Ediziora beren hautagaitza aurkeztu nahi duten ekoiztetxeek sari honi buruzko informazioa eskatu edo kontsultak egin ditzakete honako helbide elektroniko honen bidez:

- [info\\_filmcommission@donostia.eus](mailto:info_filmcommission@donostia.eus)

San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission Sariaren XII. edizioaren oinarriak San Sebastian - Gipuzkoa Film Commissionen web-orrian, Festhome plataforman eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira. Gainera, edozein pertsona fisiko edo juridikok eskatu ditzake.

### **4. Izen-ematea eta filmen hautaketa**

2023ko maiatzaren laugarren astean irekiko da interesa duten ekoiztetxeek San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission Sariaren XII. ediziorako hautagaiak aurkezteko epea.



Sarian parte hartu nahi duten ekoiztetxeek 2023ko ekainaren 30era arte izango dute izena emateko epea.

Oinarri hauetako baldintzak betetzen dituzten ekoiztetxeek edo horien legezko ordezkariak (ahaldunek) formalizatu beharko dituzte hautagai-zerrendak eta film luzeen izen-emateak, betiere behar besteko boterea dutela egiaztatzen badute.

Hautagaitzak eta izen-emateak honako plataforma honen bidez bakarrik egin ahal izango dira: <https://festhome.com/festival/premio>

Ekoiztetxe interesdunek aurkeztutako hautagaitzek/inskripzioek honako baldintza hauek bete beharko dituzte, gutxienez:

- Izena emateko unean plataforman eskatzen diren datuak eta informazioa bete behar dira. Bertan, ekoiztetxeari, haren ordezkariari eta film luzeari buruzko informazioa eskatuko da, besteak beste.
- Antolatzaileek eska dezaketen eta sari honen esparruan garrantzitsua izan daitekeen edozein informazio gehigarri ematea. Parte-hartzaileak eskatutako informazio gehigarria eman beharko du, gehienez ere 5 egun naturaleko epean, informazioa eskatu zitzaienetik zenbatzen hasita.
- Film luzearen filmazioan Film Commission baten laguntza izan zela egiaztatzen duen agiria aurkeztea, oinarri hauetako bigarren atalean («Parte-hartzaileak eta baldintzak») adierazita dagoen bezala. Dokumentu hori aurkezten ez bada, film luzea ez da sarirako hautagai gisa onartuko.

Ziurtagiri edo zigilu jasangarri bat izanez gero, edo filmaketaren karbono-aztarnaren diagnostikoa, jasangarritasun-plana edo neurketa egin izanez gero, ekoiztetxeek hori justifikatzen duten agiriak aurkeztu ahal izango dituzte, balorazio-irizpide bat izango baita, puntu honetako azken parrafoan adierazten den bezala.

Hautagaitzak aurkeztu eta izena emateko epea amaitu ondoren, San Sebastian - Gipuzkoa Film Commissioneko antolatzaileek Hautaketa Batzorde bat deituko dute. Batzorde horrek aurkeztu diren hautagaitza guztiak eta izena emandako film luzeak baloratuko ditu, eta epaimahaiarentzako azken hautaketa egingo du, hark behin betiko balorazioa egin dezan. Antolatzaileek mezu elektronikoko bidez jakinaraziko diete ekoiztetxei beren hautagaitza finalista gisa hautatu duten ala ez. Jakinarazpen hori uztailean egingo da.

Azken hautagai horien artean, epaimahaiak San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission Sariaren XII. edizioeko film luze irabazlea aukeratuko du. San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission Sariaren XII. edizioaren antolatzaileek beren hautagaitza irabazlea izan den ala ez jakinaraziko diete ikus-entzunezko ekoiztetxei (saria emateko ekitaldia baino lehen). Jakinarazpena posta elektronikoz egingo da, eta ikus-entzunezko ekoiztetxeek emaitzari buruzko konfidentzialtasuna gordeko dute saria emateko ekitaldia egiten den egunera arte, hau da, 2023ko irailaren 27ra arte.

Irabazlea aukeratzeko, epaimahaiak filma filmatu den tokiko edo tokietako balio urbanistiko, paisajistiko, kultural eta sozialak hobekien islatzen dituen fikziozko film luzea puntuatu, baloratu eta sarituko du. Ikus-entzunezko ekoizpenak jasangarritasun-zigilu/-ziurtagiri bat lortu izana ere baloratuko da, baita filmaketaren karbono-aztarnaren diagnostikoa, jasangarritasun-plana edo neurketa egin izana ere.



San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission Sariaren XII. edizioaren antolatzaileek oinarri hauetan ezarritako baldintza guztiak betetzen ez dituzten ekoiztetxe guztiak deskalifikatzeko eskubidea izango dute. Era berean, antolatzaileek deskalifikatu egin ahal izango dituzte Donostiaren eta Gipuzkoaren aurkako informazio edo komunikazio faltsuak, gustu txarreko iruzkinak edo iruzkin desegokiak egin ditzaketan ekoiztetxeak (edo horiek osatzen dituzten pertsonak). Horrez gain, eduki politikoa, erlijiosoa, arrazista, xenofoboa, sexista edo Gipuzkoako eta Donostiako irudiari kalte egin diezaiokeen beste edozein gai ere zigortuko da.

## 5. Epaimahaia eta saria

Epaimahaia 3 pertsonak osatuko dute, horiek ez dute zerikusirik izango San Sebastian - Gipuzkoa Film Commissionekin. Pertsona horiek ikus-entzunezkoen sektoreko profesionalak edo ikus-entzunezkoen edo zinematografiaren arloarekin loturaren bat duten pertsonak izango dira, eta adierazi beharko dute ez dutela inolako interes pertsonalik edo komertzialik ekoiztetxe batek edo besteak irabazteko. Epaimahaia osatzen duten 3 pertsonetako batek finalista izateko hautatua izan den ekoiztetxeren batengan interesik badu, berehala jakinarazi beharko die antolatzaileei, haiek erabaki dezaten zein diren hartu beharreko neurriak egokienak.

Epaimahaia osatuko duten 3 pertsonak San Sebastian - Gipuzkoa Film Commissioneko arduradunek izendatuko dituzte.

Epaimahaia laugarren atalean aipatzen den Hautaketa Batzordeak finalista gisa hautatutako hautagaitzak/film luzeak jasoko ditu, eta ekoiztetxe/film luze irabazlea aukeratuko du; irabazlea 2023ko irailaren 27an iragarriko da.

## 6. Saria

San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission Sariaren XII. edizioko saria ZAZPI MILA EUROKOA (7.000,00 €) izango da. Saria irabazi duen film luzea ekoizten duen enpresarentzat izango da.

Saritutako film luzea 2023ko irailaren 27an iragarriko da, eta egun horretan bertan emango zaio saria, Donostiako 2023ko Zinemaldiarekin batera.

Irabazi duen film luzearen ekoiztetxeak sari-banaketara joan beharko du. Film luzearen ekoizleak eta zuzendariak joan beharko dute, gutxienez. Bertaratzeko aukerarik ez izanez gero, justifikatu egin beharko da.

## 7. Saria zabaltzea

Film luzea ekoizti duen enpresak eta zuzendariak hitz ematen dute, saria jaso ondoren, film luzearen komunikazio- eta irudi-politikan **San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission Sariaren XII. edizioa** aipatuko dutela, berariaz eta modu argian. Sariaren logoa eta antolatzaileek saria eman ondoren adierazten dituzten gainerako baldintza gehigarriak ere aipatu beharko dituzte.

Aurreko betebeharrak hori betetzen ez bada, San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission Sariaren antolatzaileek jasotako saria itzultzeko eskatuko diote saridunari.



## 8. Oinarrien interpretazioa

Sariaren deialdian parte hartzeak esan nahi du parte hartzen duten ekoiztetxeek, dagozkien ekoizpen-eta zuzendaritza-taldeek eta Film Commissionek oinarri guztiak onartzen dituztela. Donostiako Sustapenak, San Sebastian - Gipuzkoa Film Commissionen ordezkari gisa, oinarri hauen interpretazioan eragina izan dezakeen edozein gai aldatzeko eskubidea izango du.

San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission Sariaren XII. edizioa Espainiako legediak arautuko du. Sustapen honekin lotuta sortzen den edozein arazo edo eztabaidarako, Donostiako (Espainia) epaitegi eta auzitegiek izango dute eskumena, eta berriaz uko egin beharko zaio legez legokiokeen beste edozein foruri.

## 9. San Sebastian - Gipuzkoa Film Commissionaren aipamen berezia

SSGFC XII. Sariaz gain, San Sebastian-Gipuzkoa Film Commissionek sari bat, aipamen berezia emango dio Gipuzkoan fikziozko film luze bat, film labur bat edo telesail bat filmatu duen ikus-entzunezko ekoiztetxe bati (naziokoa edo nazioartekoa). Ekoizpen hori 2022an Gipuzkoan filmatu duten eta San Sebastian - Gipuzkoa Film Commissionen laguntza jaso duten ekoiztetxeen artean aukeratuko da. Saritua aukeratzeko irizpideen artean, zinematografia-irizpideak eta filmaketaren egunak eta iraupena hartuko dira kontuan, baita gure inguruko balio paisajistikoak, kulturalak edo sozialak islatzen dituen, enplegua sortzen duen eta/edo ekoizpenak zer eragin mediatiko duen ere.

Saria, aipamen berezia, HIRU MILA EUROKOA (3.000,00 €) izango da.

Fikziozko film luzeek XII. Saria eta aipamen berezia jasotzeko aukera izango dute, betiere kategorია bakoitzean ezarritako irizpideak betetzen badituzte. Aipamen berezia jaso dezaketen film laburrak eta/edo telesailak ez dira Festhome plataforman inskribatu beharko.

## 10. Datuen babesa

Indarrean dagoen datuak babesteko araudian ezarritakoaren arabera, jakinarazten da Donostiako Udalak emandako datu pertsonalak tratatuko dituela, eta tratamenduaren arduradun gisa jardungo duela. Informazio hori Donostia Sustapena SAK kudeatuko du, tratamenduaren arduraduna den aldetik.

Tratamenduaren helburua da izen-ematea izapidetzea eta 2023ko San Sebastian - Gipuzkoa Film Commission Sarian parte hartzea kudeatzea.

Tratamenduaren zilegitasunaren oinarria Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1.b) artikulua izango da. Izan ere, tratamendua beharrezkoa da interesdunak parte hartzen duen kontratu bat gauzatzeko (sariaren oinarriak onartzea). Honela dio DBEOren 6.1.e) artikulua: tratamendua beharrezkoa bada interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoaren izenean burututako eginkizun bat betetzeko: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena, eta 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.



Oinarri hauetan edo dagozkion eskaera-inprimakietan hala adierazten denean, datu pertsonalei buruz eskatzen den informazioa ematea nahitaezkoa izango da, eta informazio hori ematen ez bada edo datu okerrak ematen badira, ezin izango da eskabidea kudeatu. Zure datu pertsonalak Hautaketa Batzordeko kideei eta film luzeak baloratuko dituzten eta saria emango duten epaimahaikideei jakinarazi ahal izango zaizkie. Sarituak pertsona fisikoak badira eta prestazio ekonomikoa badago, erakundeei datuak jakinaraztea aurreikusi da, ordainketa egiteko, Zerga Administrazioako Estatu Agentziari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari edo kontabilitate-kontrolaren arloan eskumenak dituzten beste erakunde batzuei legez ezarritako betebeharrean oinarrituta.

Ez dago aurreikusita hirugarrenei datu gehiago ematea, legeak ez badu horretara behartzen, eta ez dago aurreikusita datuak nazioartean transferitzea.

Tratamendu honen xede diren datu pertsonalak gorde egingo dira, helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko beharrezkoa den denboran zehar. Artxiboetara eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko da.

Kaltetutako pertsonak datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubideak erabili ahal izango dituzte, bai eta datuak babesteko indarreko araudian jasotako beste eskubide batzuk ere, hala dagokionean, Donostiako Udalaren Udalinfo Zerbitzuan (Easo kalea 41, 20003 Donostia).

Zure eskubideak baliatzean arreta egokia eskaini ez badizute, erreklamazioa aurkeztu ahal izango duzu Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Helbidea: Beato Tomás de Zumárraga kalea 71 – 3. solairua – 01008 Vitoria-Gasteiz. Hala ere, aldeztu aurretik eta hala nahi izanez gero, Datuak Babesteko Donostiako ordezkariarekin jar zaitezke harremanetan: [dbo@donostia.eus](mailto:dbo@donostia.eus).